**AYUNTAMIENTO DE ZUIA**

*MURGIA (ALAVA)*

**ZUIAKO UDALA**

*MURGIA (ARABA)*

## MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzen da munduko jendarte guztietan emakume guztiek gizonen aurrean bizi duten desberdintasun-errealitatea ikusarazteko. Oraindik eman gabe dauden urratsen inguruan herritarrak sentsibilizatzeko eguna da, baina baita lortutako eskubideak ospatzeko eguna ere.

Garrantzitsua da ibilbide-orria markatzeko nondik abiatzen garen jakitea, eta, horregatik, ezinbestekoa da bizi dugun errealitatea ezagutzea, datuek errealitatea ukatzea zaila egiten baitute.

Emakundek egindako Euskadiko emakumeei eta gizonei buruzko zifren azken txostenaren[i] arabera, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerak nabarmena izaten jarraitzen du bizitzaren eremu guztietan. Indarrean dagoen egiturazko desberdintasuna eta oinarri gisa duen sistema patriarkalaren testuinguruari buruzko datuen arabera, ikus dezakegu emakume unibertsitarioen kopurua gizonena baino handiagoa dela, baina, hala ere, langabezia-tasa handiena emakumeek betetzen dutela.

Gainera, aldi baterako kontratuak dituzten emakumeen ehunekoa % 90ekoa da, eta, batez beste, urtean 10.000€ gutxiago kobratzen dituzte beren gizonezko lankideen lan bera egiteagatik. Zaintzagatiko eszedentzia gehienak emakumeek eskatzen dituzte, eta amak dira oraindik ere haurren zaintzaile nagusiak. Ez dugu ahaztu behar gai horiek guztiek zuzenean eragiten dutela gero jasotzen dituzten pentsioetan. Bestalde, medikazioen kontsumoa handiagoa da emakumeen kasuan, eta gero eta ohikoagoak dira hipermedikazioaren eta emakumeei botika lasaigarriak administratzeko erraztasunaren inguruko ohartarazpenak. Emakumeak dira, hain zuzen ere, osasun mentalarekin lotutako gaixotasun gehien dituztenak.

Gizarte-prestazio gehienak emakumeek eskatzen dituzte, eta pobreziako eta gizarte-bazterketako arriskuan dauden biztanle gehienak ere emakumeak dira. Pobreziak beti izan du emakume aurpegia.

Egoera horri gehitu behar zaio erabakiak hartzeko kargu gehienak gizonek betetzen dituztela. Adibidez, EAEn 10 alkatetzatik hiru betetzen dituzte emakumeek, eta hori guztia gutxi balitz, 2022an gora egin dute indarkeria matxistaren eta emakumeen sexu-askatasunaren aurkako delituen kasuek.

Laburpen hau egungo egoeraren zertzelada labur bat baino ez da, deskribatu ditugun eremu bakoitzean gehiegi

## 8 DE MARZO, DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES

El Día Internacional de las Mujeres se celebra para dar visibilidad a la realidad de desigualdad que viven todas las mujeres frente a los hombres en todas las sociedades del mundo. Es un día para sensibilizar a la población sobre los pasos que quedan por dar, pero también de celebrar los derechos conquistados.

Es importante saber de dónde partimos para marcar la hoja de ruta y por eso es imprescindible conocer la realidad que habitamos, porque los datos son los que muestran una realidad difícil de negar.

Según el último informe de Cifras[ii] sobre mujeres y hombres en Euskadi, elaborado por Emakunde, la situación de desigualdad entre mujeres y hombres continúa siendo evidente en todos los ámbitos de la vida. Por dar unos datos que contextualicen la desigualdad estructural existente y el sistema patriarcal en el que se sustenta podemos ver como el número de mujeres universitarias es más elevado que el de los hombres, pero, sin embargo, la tasa de paro más alta la ocupan las mujeres también.

Además, el porcentaje de mujeres con contratos temporales alcanza el 90% mientras que de media cobran 10.000€ menos anualmente por realizar el mismo trabajo que sus compañeros hombres. La mayoría de las excedencias por cuidado las solicitan ellas y las madres siguen siendo las principales cuidadoras de las criaturas. No olvidemos que todas estas cuestiones impactan directamente después en las pensiones que reciben. Por otro lado, el consumo de medicaciones es superior en el caso de las mujeres, y ya hay voces que alertan de lo hipermedicadas que viven y la facilidad con la cual se administran medicamentos tranquilizantes a las mujeres, además, son quienes ostentan la mayoría de las enfermedades relacionadas con la salud mental.

La mayoría de las prestaciones sociales son solicitadas por mujeres y la mayoría de la población que está en riesgo de pobreza y exclusión social también son mujeres, porque la pobreza siempre ha tenido cara de mujer.

A esta situación se le suma que la mayoría de los cargos de toma de decisiones están ocupados por hombres, como ejemplo vemos que por cada 10 alcaldías 3 están ocupadas por mujeres en la CAE, y por si todo esto fuera poco, en 2022, se registra un aumento de los casos de violencia machista y de delitos contra la libertad sexual de las mujeres.

Este resumen no es más que una breve pincelada de la situación actual, sin profundizar demasiado en cada uno de

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*

✉ *zuiakoudala@ayto.araba.eus ● Web: www.zuia.eus*

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*

✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus ● *Web:* www.zuia.eus

sakondu gabe. Datu horiek herritarren hausnarketa bultzatu behar dute, eta administrazioek ez dugu ahaztu behar benetako berdintasuna lortzeko dugun konpromisoa eta betebeharra, eta jendartearen erdiak oraindik bizi duen indarkeria-, desberdintasun- eta diskriminazio-egoera hutsaldu nahi duten diskurtsoetatik urrundu behar gara.

Horregatik guztiagatik, **Zuiako Udalak** bere gain hartu behar du berdintasunezko jendarte bat eraikitzeko dugun erantzukizun sozial eta politikoa. Horretarako, politika feminista transbertsalak diseinatu behar ditugu, errotik eraldatzen dutenak eta eremu guztietan eragiten dutenak, indarkeria matxistak ezabatzen eta emakumeentzako bidezko bizitza lortzen laguntzeko.

Horregatik guztiagatik, konpromiso hauek hartzen ditugu:

**LEHENENGOA.-** Berdintasun-egitura baliabide ekonomikoz hornitzea, berdintasunerako eta indarkeria matxistaren aurkako politikak garatzeko.

**BIGARRENA.-** Emakumeekiko eta mugimendu feministarekiko elkarrizketa ahalbidetuko duten espazioak bultzatzea.

**HIRUGARRENA.-** Alertari eustea, udalak sortzen dituen kontratazioetan, dirulaguntzetan, ordenantzetan eta arauetan ekintza positiboak edo berdintasun-klausulak sartzea aurreikusteko, beharrezkotzat jotzen den kasuetan.

**LAUGARRENA. -** Murgia BHIko eta Virgen de Oro Eskolako berdintasun-arduradunekin koordinatuta egiten den lanarekin jarraitzea, berdintasunaren eta tratu onen balioak lantzeko.

**BOSGARRENA. -** Sexuaren/generoaren arabera bereizitako datuak biltzea, Zuiaren errealitatea ezagutzeko, espazioen erabilerari, ekipamenduei, zergen ordainketari, kultura- eta kirol-jarduerei eta abarri dagokienez.

Horregatik guztiagatik, herritarrak animatzen ditugu Gorbeialdeko Mugimendu Feministak martxoaren 8rako deitutako mobilizazioetan parte hartzera.

los ámbitos que hemos descrito. Estos datos tienen que impulsar la reflexión de la ciudadanía y que las administraciones no olvidemos nuestro compromiso y obligación para conseguir una igualdad real y nos alejemos de discursos que pretendan banalizar la situación de violencia, desigualdad y discriminación que aún vive la mitad de la humanidad.

Es por todo esto que desde el **Ayuntamiento de Zuia** debemos asumir nuestra responsabilidad social y política en la construcción de una sociedad igualitaria diseñando políticas feministas transversales que transformen desde la raíz y que incidan en todos los ámbitos, para así contribuir también a la eliminación de las violencias machistas y una vida justa para las mujeres.

Por todo ello nos comprometemos a:

**PRIMERO. -** Dotar de recursos económicos a la estructura de igualdad para el desarrollo de políticas de igualdad y contra la violencia machista.

**SEGUNDO. -** Impulsar espacios que permitan el diálogo con las mujeres y movimiento feminista.

**TERCERO. -** Mantener la alerta para que en las contrataciones, subvenciones, ordenanzas y normas que produce el ayuntamiento se contemple incorporar acciones positivas o cláusulas de igualdad en los casos que se considere necesario.

**CUARTO. -** Continuar el trabajo que se realiza en coordinación con las responsables de igualdad de los centros escolares tanto de IES Murgia como en la Escuela Virgen de Oro para trabajar valores de igualdad y de buenos tratos.

**QUINTO. -** Recoger datos desagregados por sexo/género que permitan conocer la realidad de Zuia respecto a la utilización de espacios, equipamientos, pago de impuestos, actividades culturales y deportivas…etc.

Por todo lo anterior, animamos a la ciudadanía a participar en las movilizaciones convocadas por el Movimiento Feminista de Gorbeialdea para el 8 de marzo.